

Antropologia eta feminismoa

Mari Luz Esteban
Antropologoa

Artikulu honetan, Antropologia Soziala –gizarte-zientzia bezala– eta feminismoaren arteko loturak aztertzen dira. Harreman horien ondorioz garrantzitsuen Antropologia Feminista berezituaren sorrera eta garapena izan da.

Antropologia Feministak sortzen den momentutik –hirurogeikoen amaieran edo hirurogeita hamarrekoen hasieran–, androzentrismoaren problema adierazi, aztertu eta salatzeari ekin dio. Gai honetaz lehen atalean arduratuko gara.

Aurretik ere, XIX. mendean jadanik, bai eta geroago XX.ean ere, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta azken hauen menpekotasunaren analisiak zenbait antropologoren interesa eragin du, hainbat teoria sortaraziz. Bigarren atalean hauen berri emango dugu. Era berean, antropologo feministek ere eredu ezberdinak erabili dituzte generoaren garrantzia eta eragina azaldu eta teoria antropologiko orokorretan eragin nahian. Eredu horien deskribapenak hirugarren atala osotzen du.

The article analyses the links between Social Anthropology (as social science) and feminism. The principal consequence of these links has been the creation and development of Feminist Anthropology.

Feminist Anthropology, from its creation (end of sixties, beginning of seventies) has been working to explain, analyse and claim for the problem of “androcentrims”. This item will be treated within the first part of the article.

Before and during the XIX century, as well as in XX century, some anthropologists have been interested in the differences between men and women, and also in the domination of women; different theories developed by these anthropologists are explained in the second part of the article.

The third part analyses some models used by feminist anthropologists to emphasise the importance and influence of gender and to present some other general theories.

1. Androzentrismoaren arazoa

Androzentrismoa zientziaren ezaugarri bat da: gizonak, kolektibo modura –gizartean egiten dutena eta beraiekin erlazionatzen dena– gizartea aztertzeko orduan erdian jartzea eta beraz, emakumeena bigarren leku batean uztea da. Androzentrismoa eta sexismoa lotu-loturik doaz, sexismoa zientzian ez ezik gizartearen mailetan adierazi eta islatuz.

Antropologian eta orokorrean gizarte zientzien barruan egiten diren azterketa guztiek gure gizartean gertatzen den generoen arteko harremanen egoera kontuan hartu behar dute. Arazo honetaz Antropologia Feminista delakoa arduratu da¹. Henrietta Moore antropologoak horrela azaltzen du Antropologia Feministaren garrantzia: «Honen ekarpenik garrantzitsuena, klase eta historian zeharreko giza harremanak seriooki aztertzeko, genero-harremanak ezinbestekoak direla erakustea izan da» (1991: 223).

Sexua eta generoa ez dira gauza bera: *sexua*, gizon eta emakumeen artean (omen) dauden ezberdintasun anatomiko eta fisiologikoak adierazteko erabiltzen dugu. *Generoa* berriz, kulturak eta gizarteak sexu-ezberdintasun horiei buruz egiten duten azalpena da, azalpen horren arabera, funtzio, espazio eta erantzukizunen banaketa konkretua egiten delarik².

Kritika feministak ez du emakumearen ikasketa egiten, edo ez soilik, generoen arteko harremanak eta generoa gizarte guztien ardatz egituratzaile bezala duen zereginaren ikasketa baizik. Badaude faktore batzuk taldeen banaketarako erabiliak izan direnak; klasea eta arraza, adibidez: sexu/generoa faktore horien arteko garrantzitsuenetakoa izan da hierarkia sozialak eraikitzeke orduan. Honen konstatazioa antropologia sozialaren bilakaera teoriko eta praktikokoan faktore ezinbestekoa izan da, nahiz eta gizarte-zientzien barruan kritika eta eztabaida feministak zokoratzeko hainbat estrategia erabili orain arte.

Noiz eta zelan sortzen da feminismoaren eragina antropologian? Beste gizarte-zientzietan bezala, feminismoaren azken (oraingo) mugimenduaren sorrerarekin batera, hirurogeikoen azkenean edo hirurogeita hamarrekoen hasieran³.

1. Antropologia eta feminismoaren arteko harremanei buruz, ikus Moore (1991), eta Harris eta Young (1979). Euskal Herriko egoerari buruz bereziki: del Valle et. al. (1985), eta Esteban (1992).

2. Sexua definitzerakoan *omen* jartzearena nahita izan da, sexuaren kontzeptua, medikuntza eta gizarte barruan, oinarri fisikoa izateaz gain, eraikuntza soziala baita maila batean, prozesu politiko eta ekonomiko konkretu batean erabilia eta garatua, Thomas Laqueur historialariak ondo adierazi duenez (1994).

Laqueur-ek dioenez, antzina generoa zen garrantzitsuena emakume eta gizonen ezberdintasunak erabakitzeko orduan, funtzio eta espazio sozialak alegia, eta horren arabera sexu maskulino edo femeninoa definitzen zen. Azken bi mendeetatik hona berriz, sexuak, kategoria biologiko bezala du pisu gehien eta horren gainean eraiki eta desberdindu ohi dira emakume eta gizonen betebeharrak.

Ilido berean, ikus Stolcke bibliografian.

3. Historikoki, Mugimendu Feministaren barruan hiru bolada bereiz daitezke: XIX. mende amaierakoa, sufragistena alegia; Mundu Gerren artekoa eta azken edota hirugarren bolada, hirurogeikoen amaieran sorturikoa.

Dena den, badaude emakume eta gizonen ezberdintasunak aurretik ere aztertu dituzten aitzindari batzuk. Honelako bat Margaret Mead antropologoa dugu, bere lanean oso era adierazgarrian erakutsi zuena emakumezko eta gizonezkoen rol eta estereotipoek herrietan zuten aldakortasuna: zenbait lekutan gizonezkoekin erlazionatu izan diren gauzak eta betebeharrak, beste batzuetan berriz emakumezkoenak izan dira eta dira, eta alderantziz. Mead izan zen (1982) generoaren eraikuntzan gizarteak eta kulturak berak duten ezinbestekotasuna erakutsi zuen lehenetarikoa.

Beste aldetik, antropologia feminista ez da inoiz berezitasun homogeneouskoa izan: feministek jarrera ezberdinak mantendu eta erabili dituzte gizarteetan emakumeek sufritzen duten zapalkuntza ulertu eta azaltzeko, korrante ezberdinak eta batzuetan gutziz kontrajarriak sortaraziz.

Momentu batean, antropologo asko, emakumeak gehienbat, emakumeen zapalkuntzaren problemaz kezkatzen hasi ziren, emakumeak gizartean eta disziplina barruan "ezkutatuturik" zeudela konturatuturik. Nicole-Claude Matthieu antropologoak azpimarratu duenez (1991), ezkutatze-fenomeno hau prozesu konplexu eta bikoitza da. Alde batetik, emakumeen superezkutatze-fenomenoa deiturikoa bereiz dezakegu: bilketa-lanetan emakumeak agertu egiten ziren eta betidanik dauzkagu emakumeei buruzko emaitzak; emakumeen portaera ikasi egin da betidanik antropologia barruan, sakonean ere bai. Baina normalean datu hauek ugalketa inguruko alderdiekin erlazionaturikoak izan dira: emakumeei buruz mantendu den interesa, familia, senar-emazteak eta senidetasunarekin, eta beraien barruan emakumeen paperarekin erlazionatuta gelditu da, eta argi dago emakumeak ezkutatutak izan direla gizarte-aktore bezala, paper horretan ez baitira ikertutak izan.

Problema enpirikoa barik, beraz, teorikoa izan da, kontzeptuala: ez da emakumeen benetako funtzio eta izakera sozialen ordezkapena islatu azterketetan.

Hasiera-hasieratik deigarria izan zen planteiamendu hau androzentrismoaren arazoarekin parekatu zen oso arin, baina ikuspegi edo jarrera androzentrista barruan hiru maila bereiz daitezke:

a.- Lehena antropologoaren ikuspegi pertsonalarekin lotu dezakegu: beronek "a priori" espektatiba batzuk izango ditu, ez bakarrik gizon eta emakumeen arteko harremanez, baizik eta baita harreman horien eraginaz gizarte osoa aztertzerakoan ere.

b.- Bigarrena berriz, ikasketa-objektu den gizartearekin erlazionaturik dago. Gizarte askotan emakumea gizonen menpean dagoela kontsideratzen da, eta hori da antropologoari komunikatzen zaiona edota berak ikusten duena, bestelakorik hausnartzen ez badu.

c.- Hirugarrena, azkenez, mendebaldeko kulturarekin dago erlazionatuta: bertako ikertzaileek, leku jakin bateko gizon eta emakumeen harreman asimetrikoak aztertzerakoan, gure gizartean gertatzen den harreman asimetriko eta hierarkiko berarekin lotzen dute. Baina hau ez da beti horrela, eta asimetria ez da beti ezberdintasuna, edo ez behintzat hemen bizitzen dugun era berean.

Antropologo feministek androzentrismoaren hiru maila hauek deuseztatzera jarri, eta betebeharrak honetan bi alde, edo hobeto esanda, bi garai bereizi dituzte:

1.- Gizarte edo kultura bakoitzean benetan emakumeek esan, pentsatu eta egiten dutena ikastea eta deskribatzea, eta gizonak aipatzen dutenarekin edota aurreko antropologoen esandakoarekin bakarrik ez gelditzea.

Baina hau lehen pausoa baino ez da, aurretik aipatu dugunez, benetako problema ez baitago ikerketa enpirikoan, planteiamendu teoriko eta epistemologikoan baizik.

2.- Bigarren betebeharrak eta garrantzizkoena: berregin eta birdefinitu teoria antropologikoa bera.

Androzentrismoaren bilakaera eta eraginaren pisua antropologiaren barruko azalpen-ereduetan azaltzeko hainbat teoria proposatu dira. Horietariko bat Edwin Ardener-en "ixileko taldeena" dugu.

Autore honek dioenez, nahiz eta emakumeek luze hitz egin, edota etnografoak zehatz-mehatz bildu euren esanak edo betebeharrak, hau ez da nahikoa emakumei dagokiena ondo jasotzeko: euren errealitatea begiratzeko eredu ezin baita materializatu ezta azaldu ere eredu maskulino menperatzailearen termino berberetan.

Ardenerentzat emakumeek eta gizonak ez dugu mundua ikuspegi beretik ikusten, baina autore guztiek ez dira ados egon ideia honekin. Dena den, Ardeneren planteiamendua eztabaida eta hausnarketarako oso baliagarria zaigu, eta galdera bikoitz hau egitera eramaten gaitu: emakume antropologoen, gizonen aldean era ezberdinean ikusten dute mundua? Eta beraz, emakumeak aztertzeko gizonak baino hobeto jantzita daude?

Ardeneren teoria jarraituz, erantzunak baietza izan beharko luke, eta erantzun horren inguruko eztabaida oso garrantzitsua izan da betidanik emakumeen antropologiaren garapenaren barruan eta baietza eztabaida handiz inguratuta gelditu da.

Ikus ditzagun baiezko erantzunaren arazoak zein izango liratekeen:

a.- Lehen maila batean:

1.- Ghetto eta azpiberezitasun baten sortzea: antropologia feminista gizonak egitea ezinezkoa duten betebeharrak izango litzateke, eta beraz, oso ziur, beheko maila batean geldituko litzateke. Orduan, ez luke diziplina guztian bat ere eraginik izango.

2.- Nahasketan jaustea: ez da emakumeen bizitzak aztertu beharra azpimarratzen dena, gizarte osoaren ikuspegi orokorra aldatu beharra baizik, taldeen hierarkiak agerian utziz, generoak sorturikoekin batera.

b.- *Emakumea* kategoria unibertsal modura tratatzea:

Emakume etnografoa eta emakume informatzailearen arteko balizko harreman pribilejiatu horrek *emakumea* kategoria unibertsal gisa errekonozitzera eramango gintuzke, eta horrek determinismo biologikoaren errekonozimendura, eta asko ez gaude azken honekin ados: ezin da 'emakumeaz' hitz egin, ezta 'gizonaz' ere, ez baitira errealitate bat eta bakarra. Egon badaude gizon eta emakumea izateko eredu ezberdinak eta askotarikoak, nahiz eta prototipoak eta estereotipoak bateragarriagoak izan.

c) Azkenez, baietzak etnozentrismoa eta arrazismoaren arriskuaren azpibalioztatze eta aldentzea ekarriko lituzke: feministak izateaz aparte, guztiz etnozentrikoak eta arrazistak izan daitezke antropologoak, batak ez baititu beste aukerak automatikoki deuseztatzen.

Askoren ustez, *emakumea* kategoria mantendu beharrean, *emakumeen* kontsideraziora pasatu beharko genuke. Baina, geroago ikusiko dugun moduan, androzentrismoaren arazoarekin batera, antropologia barruko beste oinarritzko kontzeptualizazio batzuen kritikan sartu ziren feministak. Adibidez, domestik/publiko, pribatu/publiko eta natura/kulturaren arteko bereizketak, antropologia sozialean eta mendebaldeko kulturaren garrantzi handia zutenak.

Domestiko/publikoa edo natura/kultura kontrajartzen dituzten bikoiztasunak kolokan jarri ziren, konprobatu baitzen gizarte batzuetan emakumea ez zegoela esparru pribatuetara ezta gizona publikoetara loturik... are gehiago, desberdinketa horiek ez zirela horrela gertatzen edo beste era batera agertzen zirela.

Mendebaldean, esate baterako, badaude arlo publikoan edota pribatuan mugitzen diren emakumeak eta gizonak, eta beste aldetik, beste gauza batzuen artean, medikuntzak eta teknologiak naturaren kontzeptuan aldaketa izugarriak eragin dituzte.

Eta honekin guztiarekin batera, antropologia feministak emakumea eta amaren parekatzea ere deuseztatu egin du.

2. Generoaren eta sexismoaren irakaskuntza antropologian

Emakumeen egoera edo emakumeak eta gizonen arteko harremanen auzia aztertu duten antropologoek problema bikoitz batekin egin dute topo betidanik: emakumeen zapalkuntzaren jatorria eta zapalkuntza horren unibertsaltasunarekin. Zergatik dagoen zapalkuntza-mota hau eta zergatik ikusten den, historikoki eta geografikoki gizarte guztietan. Antropologiaren sorreran ere problema hau eztabaidagai eta hausnarketagai zen jadanik.

Zentzu honetan, inportantea da XIX. mendean giza garapenari buruz izan zen eztabaidari begirada bat botatzea, zeren honek antropologia sozialaren bilakaeraren ulerpena erraztu egiten baitugu: antropologia sistema burgesaren

oinarri teorikoaren partea izan zen hasieratik eta bere edukien eta garapenaren bitartez zenbait talderen zapalkuntza justifikatu zen, emakumeena barne.

Giza bilakaeraren jatorriari buruzko eztabaida, adibidez, hurrengo kezkan eta galderan zentratu zen: ea emakumea inoiz izan zen menperatzailea eta hala izan bazen, zergatik galdu zuen bere nagusitasuna eta lekua gizartean.

Gaur egun, oraindik ere erantzunik gabe daude ondokoak: asimetria sexuala fenomeno unibertsala den ala ez; edo gauza bera dena: emakumea gizonaren menpean egon ote den beti.

Antropologiaren praktikan erantzun hori beste zerbaitekin lotua izan da, hau da, generoaren kontzeptuarekin berarekin eta generoaren ikasketen kontzeptualizazioarekin.

Baina jarraitu baino lehen, zerbait azpimarratu nahi nuke: seguru asko, eta antropologia feministaren azken joerek hala mantentzen dute, ez dago galdera horientzat erantzun bakarra; hau da, beste hamaika arazotan bezalaxe, emakumeen zapalkuntzaren azalpena ez da berdina izango gizarte eta kultura guztietan.

Antropologia klasikoaren barruan teoria batzuk sortu dira gizartearen sexismoa azaltzeko. Hauetariko gehienek feminismoaren kritika zorrotza jaso dute, teoria batekin emakume guztien egoera azaldu nahi izan delako, eta argi gelditu da teoria guztiak ez direla aplikagarriak gizarte guztietan.

Baina honetaz aparte, beste kritika bat entzun behar izan dute: teoria klasiko gehienetan, emakumeen aldeko jarrera aldarrikatzaile bat egotearen irudia eman arren, bertan emakumeen errol klasiko eta tradizionalen balorapena azpimarratu izan da beti, eta orduan praktikan, emakumeek historian eta batez ere azken urteetan eragindako aldaketan kontra jokatzeko zuten.

2.1. Sexu-ezberdintasunaren hasierari buruzko zenbait teoria antropologiko

Hurrengo orrialdetan, genero-zapalkuntza aztertzen saiatu diren zenbait teoria antropologiko ikusiko dugu. Baina, teoriekin hasi baino lehen, emakumeen autonomiarako eta gizon/emakumeen desberdinketarako eta bereizketa hau ezabatzeko eragina duten zenbait faktore ikusiko dugu.

Historian zehar faktorerik garrantzitsuenak hauexek izan ohi dira:

- Ekonomikoak: produktuen bilketa handiagoa den neurrian, gizonezkoen agintea handiagoa da, esate baterako.
- Senidetasunaren harremanak eta filiazio-erak ere eragina dute. Adibidez, bizitzeko lekua, matrilocala izatetik birilocala izatera pasatuz gero, gizonezkoen boterearen handiagotzea ekar dezake.

- Politikoak: kolonizatzeko-prozesuak, kolonizatzeko-aldaketak, edota egitura eta instituzio politikoaren egoeren aldaketak, azken urteetan Ekialdeko Europan gertatzen ari denaren antzerakoa edo beste.
- Erlijiosoak: e.b., Erdi Aroan Eliza Katolikoaren zabalkuntzak eragin ezkorra izan zuen emakumeen egoeran.

2.1.1. "Emakume biltzailea/gizon ehiztariaren" ereduak

Gizon ehiztariaren garrantzia gizakien garapenean, 1968. urtean Wash-burn eta Lancaster-ek emandako teorian azpimarratzen da. Beraien ustez, gizonak dira historian zehar ehizan ari izan direnak, eta ehiza ekintza ekonomikoa baino garrantzitsuagozat hartu izan da, oraingo gizakiekin erlazionatzen ditugun ezaugarri askok baitute lotura ehizarekin.

Ehiza gizonezkoen lan gisa hartu denez, emakumeek ez dutela inoiz halakorik egin pentsatu da, emakumeak haziak eta fruituak biltzen aritu zirela soil-soilik, ehizatik giza psikologia, biologia eta ohiturak eratorri omen zirelarik. Are gehiago, gizonezkoek hiltzeko duten balizko desioarekin lotu izan da ehiza, gizonezkoen oldarkortasunarekin, alegia.

Antropologia klasikoak, protohominidoetatik gureganako gizakien historian garai batzuk bereizi zituen: hasieran, eskuak aske izatearen abantailaz konturaturik, zutik jarri ziren protohominidoak, eta horrela errazagoa izan zitzaizen ingurugiroa manipulatzeko eta tresnak asmatzeko. Geroago, jarrera egokitzailea eta esku-begi-burmuina atzeraelikadura-prozesu baten bitartez, koordinazioa, efizientzia eta trebetasuna landuz joan ziren, horrela burmuin handiagoak lortuz. Ordutik aurrera, aurrerapausu handia eman zen, gizakume ehiztarira igaroz.

Emakumea berriz, prozesu horretatik kanpo gelditu zen, umeak zaintzearen ardura izan baitzuen; orduan emakumeak etxean gelditu behar izan ziren gizonak gero eta garrantzitsuago bihurtuz, elkarren ondoko ehizarako teknikak asmatuz eta komunikazioa, lengoia, artea eta talde-dinamika landuz.

Historiaren irakurketa honen arabera, emakumeek umeak erditu eta zaindu eta gizonen etorrera itzarotea besterik ez zuten egin, eta horrek beren etorkizuna eragin zuen goitik behera, zeren euren betebeharra, gizakientzako inportantea zegoen lekutik kanpo gelditu baitzen, talde guztiarentzat ezinbestekoak ziren erabakiak alor publikoan hartzen baitziren.

Teoria hau sortu ondoren, hori guztiori ez zela horrela gertatu erakusten zuten ikasketa eta teoria batzuk ere sortu ziren: kultura askotan emakumeek ehizaren inguruko aktibitateak ere landu izan baitituzte, normalean behe-mailako ehiza (animalia txikiak) izan bada ere. Baina honetaz aparte, fruitu eta hazien bilketak ere (emakumeen lana izan da hau askotan) izugarritzko garrantzia izan zuela erakutsi da, ekintza horretatik herriko biztanle guztion elikadura eta pertsonen bilakaera eratorri baitzen gizarte askotan, ehizatik baino gehiago, alegia, eta, gainera, beraien inguruan, gizakientzat ezinbestekoak izan diren tresnak eta asmakizun kulturalak sortu baitziren (Linton 1979).

2.1.2. Matriarkatuari buruzko teoriak eta mitoen garrantzia

Eztabaida hau J.J. Bachofen-ek joan den mendean argitaraturiko teorian oinarritzen da. Bachofenen lana, antropologoak oso gutxi kezkatzen zituen korrante teoriko baten barruan gelditu zen kokatuta, baina Engels-ek, *Sendiaren, jabeago pribatuaren eta estatuaren etorkia* delako liburuan, Bachofenen matriarkatuaren teoriaren kritika egiten du, eztabaida erraztuz. Mugimendu feministaren zenbait autorek birsortzen dute matriarkatuaren teoria hau, Engels eta Bachofenen irakurketak egin ondoren.

Bachofenek Greziako poesia eta literaturaren iturri historikoetan oinarritu zituen bere argudioak. Bere ustez, momentu historiko batean “amaren zuzenbideak” lehentasuna izan zuen, eta hau fakto historiko eta moralizat hartu zuen, ama eta seme-alabaren arteko lotura biologikoan oinarrituz.

Matriarkatua horrelaxe definitu zuen: «Amaren dominioa familia eta estatuaren gainean». Forma sozial hau gizonezkoen kontrolik gabeko sexualitatearen aurkako emakumeen ekintzaren ondoren sortu zuela zioen. Orduan emakumeak kexatu egin zirela eta iraultza egin zutela. Geroago, betiere autore honen ustez, gizartearen eraldaketa batzuk gertatu ziren eta azkenez familia monogamikora ailegatu ginen eta, horrekin batera, amaren bidezko jabetasun eta leinuaren transmisiora. Fase honen atzean, Ginokrazia edo emakumeen hiri-gobernura pasatu zen, baina gerora aitaren jainko-printzipioa aurrekoaren gainean gelditu zen. Hala ere, lehengo egoerak eragin handia izan zuen, aztarna utziaz estatuaren erlijioan.

Teoria honek, beraz, izakera sakratua eman zion matriarkatuari, baina oso iturri historiko zalantza-koetan oinarritu zen, jainkosen existentzian eta konprobatu ezinak ziren beste gauza askotan.

Honen ondorioz, feministak bi taldetan banatu ziren:

1.- Batzuek ez zuten matriarkatuaren existentzia frogatu nahi, baina bertan feminismoa eta antropologiarako ekarpenak ikusten zituzten.

2.- Beste aldetik, Joan Bamberger bezala, mitoen garrantzia azpimarratzeari ekin ziotenak zeuden. Gizarte askotan aurkezten diren mitoek diotenez, beste garai batean emakumeak meneratzaileak izan ziren.

Bambergerek mito eta historiaren arteko Bachofenek egiten duen nahasketa kritikatu egiten du, eta emakumearen boterearen kontakizun gisa barik, gizonezkoen aginterako justifikaziotzat hartzen du mitoa: emakumeek gobernatutako gizarte hondamendira zihoan eta gizonezkoek etorri behar izan zuten ordena jartzera.

2.1.2.1. Euskal Herriko eztabaida

Garai batean polemika handia sortu zen euskal matriarkatu posibleari buruz, eta Caro Baroja eta Barandiaran autore garrantzitsuek euskal matriarkatuaren

alde idatzi zuten. Geroago, beste autore batzuek ere defenditu zuten, hala nola Ortiz-Osés, Ortzi eta Federico Krutwig-ek. Hala ere, beste autore batzuk, Teresa del Valle kasu, kontra jarri ziren⁴: azken hauen ustez, ez zegoen horren aldeko frogarik, mitoak eta elezaharrak besterik ez. Mito hauek eta beraien gainean sorturiko teoriak euskal emakumeen zapalkuntzarako erabili dira beti, emakumeen rol tradizionalen beharra azpimarratzen baitzuten.

Gaur eguneko ezagupenen arabera, ezkorrak izan behar dugu matriarkatua izan omen duen gizarte baten aurkikuntza posibleaz. Gizarte patriarkalak nonahi aurkitzen dira, baina egia esan, antzinako gizarteetako dokumentu juridiko eta idatzi gutxi daude eta ondorio finkorik ezin da atera. Dakigunaren arabera, matriarkaturik ez dela inoiz eta inon egon ziurtatu beharko genuke.

Beste aldetik, matriarkatu mitologikoak herri askotan izugarriko garrantzia izan duela onartu behar dugu, baina ondo ulertu behar da honen esangura. Bambergerek dioenez, mito hau errealitate historiko baten erreplika izan barik, taldeko esperientziaren zati baten historia da, denbora eta espaziotik kanpo gelditzen dena.

Mitoaren funtzioa haxe litzateke beraz: gertatu diren gauzen deskribapena barik, errepikapenaren bidez herri horren historia morala egiten da. Mito askotan agertzen da emakumeen antzinako gobernuaren ideia, eta beraien artikulazioa antzerakoa izan ohi da: lehen fasea kaosa da, “orden sozialaren” aurrekoa, non emakumeak logia sakratuak eta maskaren sortzaileak eta jabeak izan ziren. Baina, emakumeek justizia eta errukirik gabe gobernatuz, aldatu egin zuten egoera hau; momentu horretan gizonezkoek boterea lortu eta kaos hori gainditu egiten dute, emakumeak dominatuak izatera pasatuz.

Beste aldetik, mito hau dagoen herri guztietan, sexu-desberdintasuna determinatzen duten arau kulturalak eta prozedurak ikus daitezke. Oposaketa hori beraz, emakume eta gizonen unibertsoen banaketa, erreal da, ez da mitikoa. Zentzu honetan, idazkera ezagutzen ez duten gizarteetan, esate baterako, mitoa eta horren inguruan antolatzen diren errituak taldea hezitzeko balio dute.

Zenbait feministak emakumeak eta gizonak bereizten ez zituzten gizarteen existentzia defenditzen dute, hala ere, eta horren barruan matriarkatua. Baina, ezin da frogatu, ez baitago frogarik.

2.1.3. Produkzioa eta erreproduzioaren arteko banaketa. Etxe barruko eta kanpoko harremanak

Emakumeen sexu-zapalkuntza azaltzeko beste era bat, lanaren banaketa “natural” batean eta bi alorretako ezberdintasunean, produkzioarenean eta erreproduzioarenean, oinarritua izan da: gizonak produkzioarekin erlazionaturikoaren arduradunak izango lirateke (alorrik garrantzitsuena definizioz), eta emakumeek berriz, euren biologia dela medio, eta argudio esentzialistetan oinarrituz, ugalketa

4. Ikus del Valle 1990, 1991 eta Esteban 1992.

edo erreprodukzioarekin loturiko funtzioen arduraren izango lukete (gizarterako garrantzi txikiagoak).

Aurreko orrietan esan dugun moduan, Engelsek, Bachofenen teoriak oinarri, emakumeak antzina gizonen baldintza berdinetan izan zirela taldeko partaide idatzi zuen, baina geroago jabetasun pribatu maskulinoa eta familia monogamikoaren bidez, eskubiderik gabe gelditu izan zirela.

Engelsen tesiek eragin handia izan zuten teoriko eta feministengan. Hala ere, azken denborako feministek beraren teoriaren kritika gogorrak egin dituzte, nahiz eta emakumeen egoeraren analisisan ekarpenak izan dituela onartu. Beraren aurritzi esentziazaleak kritikatu ziren, bai eta lanaren banaketa "naturalaren" existentzia hori ere, non gizonak produkzioarekin erlazionatzen diren eta emakumeak birsorkuntzarekin. Era berean, emakumeek arbuatzen zuten eta familia monogamikoa ekarri zuen "kontrolik gabeko" sexualitate eta promiskuidaderako gizonen joera hori ere kritikatu izan da.

Azken urteetan, alor produktiboa eta erreproduktiboa banatzen duen ezberdintasuna ere kolokan jarri da. Aldi berean, lanaren banaketa sexualaren inguruko zenbait kontzeptu eta ideiak buruz ere hainbat galdera sortu dira, emakumeen betebeharrak, ordainduak izan ala ez, sistema ekonomikoekin mantentzen duten harremanaz, bai eta ekonomia, familia eta pribatu/publikoaren banaketari buruz ere bai.

Antropologian egindako kritika feministak erakusten duenez, ezin dira emakumeen betebeharrak produktibo eta erreproduktiboak hain erraz desberdindu eta banan-banan aztertu. Mundu osoko emakumeen lan produktiboak etxetik kanpo eta barruan egiten dira. Lan hauen izaera zehatza kultura batetik bestera aldatu egiten da, baina emakumeen zereginak, *grosso modo*, ondorengo lau kategorien barruan bana daitezke: nekazaritza-lanak, merkataritza, etxeko lanak eta lan ordaindua.

Behatzaile askok emakumeen lan ordaindu gabearen benetako garrantzia eta etxeko ekonomiarako horren ekarpena sistematikoki azpibalioztatu dute. Mooren ustez, bada zenbait arrazoi hau horrela izateko, baina garrantzikoena, inportantea zer den ezartzea eta 'lanaren' definizioa bera dela uste du; era honetan, badaude emakumeen aktibitate asko lan moduan hartzen ez direnak, nahiz eta beraiek eta beraien inguruko pertsonen subsistentziaren parte garrantzitsua izan (1991).

Esate baterako, azterketetan askotan agertzen dira "etxeko andreak" diren emakumeak, etxe barruko funtzioak eta bere gain dauden pertsonak zaintzeaz aparte, errealtatean nekazari-lanak eta eskala gutxiko azoka-produkzio lanak egiten dituztenak. Emakume horiek etxeko ekonomiarako parte ezinbestekoa dira, zuzenean ala zeharka.

Esther Boserup ekonomilaria emakumearen lana konparatiboki aztertu zuen lehenetarikoa izan zen, gizarte kopuru handi bateko emaitzak erabiliaz. Emakumeen lana, gauden gizartearen arabera ezberdina zela adierazi zuen Boserup, eta

eta gizonak ez direla beti elikagaien hornitzaileak. Ildo berean, subsistentzia ekonomia askotan kapitalismoak eta kolonialismoak ekarri duen ondorio ezkorra azpimarratu zuen (Moore 1991).

Lan hauen garrantzia emakumearen estatusa, lanaren banaketa sexuala, senar-emazteen eta oinordekotasunaren formak eta produkzio-harreman ekonomikoekiko lotura egonkorren existentzia erakustea izan da. Harreman hauek antropologia eta beste diziplinetako ikasketa feminista askoren muina izan dira.

Beste autore batzuk ugalketa-alorrean zentratu dira. Claude Meillasoux-ek, adibidez, produkzio-bitarteen kontrolak ugalketa-bitarteenak (hau da emakumeen kontrola) baino garrantzi txikiagoa duela adierazi du. Baina oraindik bada zenbait puntu argitzeke, hala nola gizonak egindako kontrol honen aurreko emakumeen erantzuna, edo azken hauek euren lanaren fruituen gainean mantentzen duten kontrola.

Meillasouxentzat, senidetasun-harremanak boterea eta agintaritzara eramaten dituzten gizonen arteko harremanak definitzen dituzte; hala ere, herri askotan emakumeengandik sorturiko senidetasun-harreman oso funtsezkoak izan dira. Hau guztiarengatik, ezin dugu emakumeen domestiko/ugalketa funtzioa garai eta gizarte guztietan aurre-determinaturikoa bezala ikusi (Moore 1991).

Izan ere, zenbait autorek honako hau adierazi dute: etxeko lanetan laguntzarik ez duten emakumezkoek gizonen menpekotasun handiagoa izango dutela, etxe barruan gizonen agintaritzaren menpean izanik. Beste aldetik, munduko komunitate askotan emakumeen inguruan dabilzan talde domestikoak aurkitu izan dira, emakumeak buru direlarik.

Nahiz eta "familia" eta "etxea" terminoak askotan desberdintzeko zailak izan, beraien harremanaren azterketak oso ondorio argigarriak ematen dizkigu, denboraren pasatzea, pertsonen adina edota kultura ezberdinetako errealitatea kontuan harturik. Adibidez, etxeko baliabideak gizonen menpe daudela eta etxea, produkzioa, erreproduzioa, kontsumoa eta gizarteratzeko prozesuetan barneko oinarriko unitatea delako ustea errakuntza bat da.

Batzuetan, esate baterako, etxe, senar-emazte eta senidetasunetik kanpoko pertsonekin izandako harremanak beste errekurso batzuetara ailegatzeko funtsezkoak dira. Moorek ateratzen duen ondorioa jarraituz, antropologian egindako senidetasun-sistemen analisi tradizionalak emakumeak aktore eta sortzaile sozial independente bezala enoratu egiten ditu.

3. Sexu-ezberdintasuna aztertzeko ereduak antropologia feminista barruan

3.1. Generoaren sorkuntza kulturala

Genero eta sexu-estereotipoen analisi amaigabea izan da antropologia feministaren ekarpenik garrantzitsuenetakoa. Generoaren sinbolismoaren

analisia ekarri duen autorerik nagusienetariko bat Sherry Ortner izan da, hirurogeita hamarren erdian idatzi zuen «¿Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura?» delako artikularekin.

Ortnerentzat emakumeen menpekotasuna unibertsala da, baina esentzia zaletasun biologikoa arbuiatuz, beste azalpen baten bila jarri zen. Bere ustez, kultura guztietan azpibalaturiko elementu bakar bat dago soilik, naturaren kontzeptua alegia. Kultura natura kontrolatu eta meneratzen saiatzen da. Kultura beraz, naturaren mundua baino goi-mailakoagoa da eta natura mugatzen eta gizarteratzen saiatzen da, gizarte eta ingurugiroaren baldintzak eta indarrak erregulatu eta gainbegiratzeko helburuaz.

Ortnerrek dioenez, emakumezkoak naturarekin lotu edo identifikatuak izan dira, eta gizonezkoak berriz kulturarekin. Kulturak natura kontrolatu eta meneratu nahi duenez, 'naturala' da baita ere emakumeen kontrol eta menpekotasuna ere, naturarekiko hurbilagoak izanda.

Natura/kultura eta emakumea/gizona binomioak erlazionatzen dituen emakumeen menpekotasun sozialari egindako hurbilketa dualista honek hirurogeita hamarrenekoaren amaiera edo lauogeikoen hasierako antropologian izugarritzko garrantzia izan zuen, eta gizon/emakumeen arteko ezberdintasun sozialei buruzko antzerako kontzeptualizazioekin, pare kontrajarrien bidez eginikoak ere, analisi berberak egitera eraman zuen, hala nola, 'domestiko/publiko', 'pribatu/publiko' dikotomien gainean egindakoak.

Mooreren ustez, 'gizona' eta 'emakumea' kategoría edo eraketa sinboliko legez analizatzeak abantaila bat du: kultura konkretu batek gizonezkoa edo emakumez-koa izatea zerekin lotzen duen identifikatzea erraztea. Hala ere, "natura/kultura" oposizio honek kritika zorrotzak jaso ditu, batez ere parekotasunik ez duten gizarteak aurkitu eta aztertu ondoren.

Mota honetako jarrerak, eta Ortnerrenak konkretuki, planteiatzen dituzten problemak ildo hauetatik doaz:

1.- Kutsadura kontzeptua (emakumearekin lotua izan da): generoaren sinbolismoaren apartekotasunik ikasienetarikoa izan da emakumeen beheko estatusa azaltzeko. Baina, argi frogatu izan denez, gizarte guztietan ez da mantentzen lotura hau.

2.- Pribatua eta publikoaren banaketa. Binomio honen garrantzia mendebaldeko ezaugarri bat baino ez da, mundu modernoarena alegia, eta ezin da erabili edozein herriren esperientzia aztertzeko.

3.- 'Emakumea' kategoría 'amarenarekin' nahastua izan da: nahaste hau emakumearen biologizismoaren ideian datza eta jarrera hau ez bada mantentzen ezin da bestea ere sostengatu.

3.2. Generoaren analisi soziologikoa

Beste autore batzuentzat emakumeen menpekotasuna ez da unibertsala eta, beraien ustez, genero-harremanen arazoa gizonen eta emakumeen eguneroko egiten dutenaren analisisan datza eta ez gizarte konkretu bateko balorazio sinbolikoak edo espektatiba kulturaletan.

Hala, genero-problema aztertzeko 'ikuspegi soziologikoa' deiturikoa erabiltzen dute, harreman bat bezala ikusiz. Eleanor Leacock, antropologo marxista, adibidez, Engelsen teoriarekin ados da, beste idazle feministen aurriritzen guztiz kontra.

Beste aldetik, autore hauek argi utzi dute genero-harremanak eraldatuak izan direla erabat munduaren alde askotan, kolonizazio, mendebalderako eta nazioarteko kapitalismoaren eskutik. Eta gero eta ikerketa gehiagok erakusten dute emakumeen gizonen menpekotasuna hazkunde eta lan ordainduaren bidez gehituz joan dela.

3.3. Analisi-sinbolikoa eta soziologikoa bateraturik

Zenbait aditu feministaren genero azterketa aldi bereko kokapen sinboliko eta soziologikoen bidez egin da, Jane Collier y Michelle Rosaldo jarrera honen adibide bi direlarik (Moore 1991).

Autore hauentzat prozesu produktibo eta politikoak, pertsonen izaten dituzten pertzepzioak eta balorazio kulturalak aparte utzita ulertzea ezinezkoa da. Ikuspegi honetatik, sexu-estereotipo eta sinboloen indarra ez da soilik psikologikoa, beraiek sortzen diren baldintza sozial eta ekonomikoak kontsolidatzen dituen errealitate materiala ere kontuan hartu behar baita.

3.4. Emakumea pertsona bezala ikustea eta beste eredu berri batzuk

Azken urteetan aktore sozialak eta beraien eguneroko estrategiak ikasten dituen korrante bat sortu da antropologian. Berau, antropologian estrukturalismoak izandako eraginaren aurreko erantzuna izan da maila batean, antropologo eta aztertzaileen ereduak aktoreenetatik desberdintzea nahi duena. Esperientzietan jarritako enfasi honek "esperimentatzen" eta "pertsonaren" garrantzira eramaten gaitu.

Marilyn Strathern da jarrera honen inguruan ekarpen eta kritika gehien egin duen antropologoa. Beste errealitateak aztertzerakoan, autonomia, boterea, pertsona, alor domestiko/publiko, etabarreko mendebaldeko kontzeptuak indiskriminatuki elikatzearen arriskua azpimarratu du Strathern-ek. Era berean, egunerokoan emakumeen duten garrantziari buruzko kontsiderazio alternatiboak ez direla ikusten esaten du, ezta beraiek ordezkatzeko dituzten botere-mailak ere, edo portaerak beraien analisisan, 'maskulinoak' eta 'femeninoak' bezala definituak direnean.

Teoria feministekin amaitzeko, azken urteetan, sexu-zapalkuntza aztertzeko beste ikuspegi hauek erabili izan ohi dira:

- Kapitalismoak eta sozialismoak eragindako aldaketen ondorioen azterketa.
- Emakumeak eta Estatuaren arteko harremanak zehatz-mehatz aztertzea: emakumeei zuzenduriko laguntzak, alor publikoak parte hartzearena, etab.
- Gizartearen aldaketa sozial orokorren analisisa.

4. Amaiera gisa

Lehenik eta behin, esan beharra dugu, hogeitau urte hauetan, generoaren ikerketa eta ikasketa-esparrua asko zabaldu dela. Gainera, hasieran emakumeen bizitzetan soilik zentratu izan bazen ere, orain identitate maskulinoarekin eta gizonekin erlazionaturikoaren ikerketak ere gehitu zaizkio. Hau da, helburu nagusia betikotz ez da emakumeen ikerketa, generoen arteko harremanena baizik.

Era berean, antropologia eta feminismoaren arteko lotura aldatuz joan da eta problema eta kezka berriak sortu dira. Bestalde, antropologia feministaren ekarpenak eta generoaren garrantzia eta eragina gizartean errekonoziturik daude maila handi batean. Aldi berean, gizonezkoak ere sartu dira prozesu honetan eta gaur egun badaude euren lanetan generoen arteko harremanen garrantzia erabat sartu duten antropologo gizonezkoak.

Hau da, feminismoak arrakasta esanguratsua izan du. Hala ere, zenbait autorek arrakasta honen inguruko kezkek agertzen dituzte, askotan prozesu hau oso azalekoa izan baita eta sakonera joango bagina feminismoaren kontrako erantzun sendoa gorpuztu dela frogatuko genuke.

Erantzun ezkor hau hiru modutan azaltzen da. Alde batetik, autore batzuek jarrera aktiboa dute eta lan feministen kontra jarduten dute. Bigarren erantzun-maila bat hedatze-bideei dagokie: lan feministak askotan bide paraleloetatik zabaldu behar dira, eta honen ondorioz antropologo askok ez dute onartzen teoria feministek eraginak izan direla. Eta hirugarrena, feminismoaren genealogia deuseztapena dei genezakeen jarrera ezberdin daiteke: autore askok, gizonezkoak orohar, generoari buruzko gauzak egiten hasiak dira, gai askotan batez ere erdi derrigorrezkoa bihurtu delako (aipamen modura behintzat), baina genealogia feministatik kanpo mugitzen dira, hau da, aurreko erreferentziak eta teoriak ez dituzte kontuan hartzen.

Beste maila batean, azken boladan, autore askok, klasea, generoa eta arrazaren arteko loturak batera ikasi beharra azpimarratu dute. Autore hauentzat, hiru zapalkuntza-ardatz horiek sistema bakar baten elementu osagarriak baino ez dira, eta ezin da bata aztertu beste biak kontuan hartu barik. Baina honek zailtasun teoriko eta metodologiko berriak ekarri ditu feminismoaren konplexutasuna erabat areagotuz. Beste faktore berri bat generoaren barruko aniztasuna dugu, eta

gizonezko eta emakumezkoen ezberdintasuna askotan marrazteko zailtasuna, batez ere sexua kategoria biologikoaren eraikuntza kulturala erakusten ari denetik.

Azkenez, antropologia feministaren ekarpen eta ezaugarririk garrantzitsuenaz hitz egiteko lau gauza aipatuko nituzke:

1.- Feministek gizarte askori buruzko emaitza antropologikoak lortu dituzte, batzuk erabat berriak eta kritikoak, teoria antropologikoaren garapenean garrantzi handia izan dutenak.

2.- Antropologo feministen lanak, feminismoa, mugimendu eta teoria sozial eta politiko gisa garatzean ere garrantzi handia izan du.

3.- Teoria feministak (eta honen barruan teoria antropologikoa ere bai) teoria modernoak eta aldi berean postmodernoak dira. Hau da, arrazionaltasunak eta Ilustrazioaren ideiek bideratu zituzten baina kritika postmodernoa ere koka ditzakegu, zientziaren "objektibitate" eta "arrazionaltasunaren" kritika serio eta gogorra ere sortu baitira beraien barrutik.

4.- Gaur egungo analisi feministen ezaugarririk garrantzitsuenak konplexutasuna eta aniztasuna dira: elementu eta irizpide berri asko sortu dira eta beraien arteko konbinazio eta hierarkizazioak gertatu dira. Antropologia feministaren etorkizuna, beraz, prozesu hau bideratzeko moduren arabera izango da, baina antropologia sozial orokorrearekin izango diren harremanen menpean ere gelditzen da.

Bibliografia

- Del Valle, T., (1990): "Matriarcado", *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, 188-191, Donostia.
- Del Valle, T. et al., (1985): *Mujer Vasca. Imagen y realidad*, Anthropos, Bartzelona.
- Esteban, M.L., (1992): "Diversas teorías sobre el origen del sexismo. Aproximación desde la Antropología". "Desarrollo del sexismo a través de la historia. Historia del País Vasco", *Hacia una escuela coeducadora*, Emakunde (Cursos Emakunde), Gasteiz.
- Harris, O. eta K. Young, (1979): *Antropología y feminismo*, Anagrama, Bartzelona.
- Laqueur, Th., (1994): *La construcción del sexo*, Ed. Cátedra (Colección Femenismos), Madril.
- Linton, S., (1979): "La mujer recolectora: sesgos machistas en antropología", Harris, O. eta K. Young, *Antropología y feminismo*, Anagrama, 35-46, Bartzelona.
- Matthieu, N.C., (1991): *L'anatomie politique, Catégorisations et idéologies du sexe*, Coté-femmes éditions, Paris.
- Mead, M., (1982): *Sexo y temperamento*, Ed. Paidós Ibérica, Bartzelona.
- Moore, H.L., (1991): *Antropología y feminismo*, Ed. Cátedra (Colección Femenismos), Madril.
- Stolcke, V., (1992): "Es el sexo para el género lo que la raza para la etnicidad?", *Mientras tanto*, 48. zk., 87-111.